

arri koskorrik mosutuz
doakit dantzari.

—«Erreka —otsegin dautsot—,
i bere kezkaz al abil,
bedar ezeak lazanduz,
otzaren ots bipil?

Ta, xinpleki, erantzun daust:
—«Beti ibilli, ibilli!
Nik, mendi bakea iztean,
ba-dot kezka-gili».

Nik dasat: «.Iñolaz bere,
eztot negar gabe
ez oianik, ez biotzik:
bee-ibar bere baitogu
nausi atsekabe»

UR! UR!

(Pisuerga ondoan egiña)

Ur! ur!, zokoz zoko arin oan ur!
Zer dala-ta dagik orren mee surmur?
Arri ta zur naukak ertz muskerrean,
ire ai jasoten aize urdiñean.

Ibillian gartsu lorai laztanka,
ipuiñez diarduk ixil-mixilka?
Ala, ari gaiztozko, mormox-uts abil,
uberkak esitzen aulako zurbil?

Aspaldia danik zori bardiñak
ez ete alatzen gure barrenak?

Erreka yaroat muiñean oska,
iñoiز ixil bako naigabe-erreka.

Gaitzetan nagola urteak dira,
ta noiz barriro ikus zorun-dirdira?
Eguzkiak dagi argi goibela,
pizkaka darion izpi motela.

Ixil-zale diran maite bi letxe,
gu gagozan emen guztiz as-arte.
Minkide aut, urtxo, samiñez ase;
ik argitu leikek nire errai-leze.

Gorrotoa yabilk an-or nagusi,
ta bake-eske igana nator igesi.
Gizarteko aize atsituz urrun,
zeru yoat jre altzoa, kutun.

Ta iri yiñoat gaur ercsta miña,
azalera barik jaon eziña:
i beintzat erruki, urtxo gardena,
neugaz bai darabilt miñik latzena.

Bein bota ninduen neureakandik,
ta arrezkero ba-dot naiko oiñazerik.
Aita itxi naioan, ala-bearrez,
ta ama noiz itoko zotin-negarrez.

Nire oiua bai zala garratza!
Zimel eustan ja miñak biotza.
Poz-zuzia yatan osoz itzali,
ta gogoa laiño kizkor estali.

Ordutik, ai ene!, goibel naz bizi:
igar-laru soiña, arima larri,
ta noiz-arte ekingo negar-bidetik?
Eriotzaraño ez ete jzarrik?

Ibilli ba'nabil maaстian zear,
aienak oi dabez mosuak alkar;
zurtuta entzunik nire aiotsak,
oparo darie malkoa lorak.

Abetxu gaiñean txindorrak diño:
«Gazterik mindua gure maiteño».
Ta beterik dago eztigai gozoz,
ase al ba'nadi txinta-erioz.

Bidez ba'nakuse, aurtxoak agur:
«Bekokian dozu iraiñezko ikur».
Iguin aut, ba, gizon, guzur ta marru;
iguin aut benetan ni lotu-esku.

I, barriz, maite aut, leiar urdiña,
ik bai daiek goza ene samiña.
Baiña, arren, ez egik ots ain itunki,
muiñea yat lertzen ori entzuki.

ZALDUN AUNDIKIA

Ezpai-oroiz betea doa bide zear
zaldi arrai gaiñean zaldun aundikia,
gibel geratzen dala bere sorteria,
aspaldi aundian
negar ixurian.

Bide zear yoatzu arrats beeratzean,
lizar, altz eta ur-usaiñez beterik airia...
Arek igurtzen dautso buruko uledia,
goi-tximak astinduz
zeru-ats lurrunduz.

II SAILLA

Zaldi gaiñean doa amusko ta bare;
biotza dau egarriz, urruti galdua,
tente, zut, ipar-eske biurtuz burua:
auntz-osto pareko,
itsaskor, arrosko.

Kezkaz ta izuz doa zaldun aundikia,
joan oroi gaitoak dakarre ebainduta...
Nork ari sakondu al barrengoa apeta?
Soil dabil zalduna,
biotza dau illuna.

Geriza dagi, luze, zaldi-gaiñ ibilki,
biotz-okondoan be geriza dagitso
—iñoiuz uxatzen eztan barrunbe-zimiko—
ezpata zorrotzak,
naigabe arantzak.

Arrats-beran, zalduna, ibar-ertzez doa...
Euzkiak azken izpiz urretan dau iazten,
oroiz dautsola espia barruan biztuten.

Oi, gure zaldunak
dituan asunak!

Ibar-ertz musker zear olan doan jauna
nor dogun diñostazu? Erriko jauntxua:
erri-odola miztuz egin dau dirua.

O gaitozko usana,
odola dokana!